

SANTAMASAK 2018

OINARRIAK ERAKUSLEIHO LEHIAKETARAKO

1. Lehiaketa honetan parte hartu dezakete Arrasateko komertzio eta zerbitzu guztiek, ostalaritzakoek barne.
2. Izena emateko epea bukatuko da 2018ko abenduaren 14a (barne).
3. Lehiaketan parte hartzeko, izena eman beharko da. Izena hemen emango da: Udaleko Toki Garapenaren sailean (943 25 20 17 – nlazpiur@arrasate.eus), BAZen, udal webgunean edo Merkataritzako bulego teknikoan (943 79 30 90 – aitziber@debagoiena.eus).
4. Erakusleihoak jarrita egongo dira abenduaren 15etik aurrera, eta gutxienez, abenduaren 31 arte egon beharko dira.
5. Lehiaketaren sariak erabakitzeke, irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 -) Erakusleihoan Santamasetako giroa islatzea
 -) Erakusleihoan Gabonetako giroa islatzea
 -) Euskararen erabilera
 -) Irudimena
 -) Originaltasuna
 -) Publizitate mezuaren eraginkortasuna
 -) Ingurumenaren zaintza eta errespetu balioak
 -) Emakumeen eta gizonetzkoen artean berdintasuna errespetatuko da
 -) Derrigorrezkoa izango da erakusleihoan jartzea dendan salgai dauden produktuak
6. Sariak honela banatuko dira:
 -) 1. saria: plaka eta 500 €
 -) 2. saria: plaka eta 350 €
 -) 3. saria: plaka eta 250 € (Ibai-Artek emana)
 -) Auzoko erakusleiho onenaren saria: plaka eta 250 €
 -) Herritarren saria: plaka eta 300 €
 -) Herritarren saria bozkatzen dutenen artean zozketatuko da 100 €ko bono bat Arrasateko edozein komertziotan gastatzeko.
7. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da eta hedabideen bidez jakinaraziko da bere garaian. Bestalde, epaimahaiaren lana errazteko, eskatzen da erakusleihoak argiztatuta edukitzea lanegunetan, dendak ixteko ordura arte, eta jaiegun eta bezperetan, gaueko 21:00ak arte. Sariak banatuko dira 2018ko abenduaren 21ean, arratsaldeko 6etan.
8. Epaimahaiak aukera izango du saririk hutsik uzteko.

9. Epaimahaia honela osatuko da:

-) Toki Garapenaren saileko edo eta batzordeko kide bat
-) Aditu bat apainketan, diseinuan edo eta eskaparatismoan
-) Merkatarien elkarteko kide bat

10. Bozketa telematikoa egingo da udal webgunearen bitartez, eta parte hartu dezakete herritar guztiek.

11. Lehiaketa honetan parte hartuz gero, oinarri hauek onartzen dira.